

ZER DUT EGLU-REN KONTRA?

Areatza (Arratia), 1998-VII-24

Rudolf P. G. de Rijk

Nahiz zuen guztion aitzinean mintzatzeko abagune hau ohore handitzat daukadan eta bihotzondoa Bizkaiko txoko zoragarri honek biziro alaitzen dandan, ez nator osoro kezkarik gabe nire hemengo eginbeharra dela eta. Dakikezueenez, zuen aurreon *EGLU*-ren (Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehen Urratsak*-en) kritika egitera agertzen banaiz, ez naiz neure kabuz honetaratua, Gramatika batzordeak berak eskatuta ez ezik, hertsatuta ere bainago. Ezbaialdi luze bat ukan dut: izan ere, egoki ote da euskaldun jatorrentzat bereziki burututako gramatika hau gehienaz ere euskaldunberri motela izatera iristen naizen honek kritikatzea? Zalantza horretan murgildurik nirauren harik eta Eugène Ionesco-ren esaera bat topatu arte. Frantses antzerkigile sonatu horrek esanaren arabera, eskolako maisua ez baina obraren ikaslea izan behar du kritikariak. Hori egia bada, edonork hainbat eskubide daukat nik *EGLU*-ren kritikaria izateko, aspaldidanik haren ikaslea naiz eta. Pentsaera horrek Gramatika batzordeko adiskideen deiari erantzuteko oztopoak hein batean kendu dizkit, eta horra zergatik ikusten nauzuen mahai honen ostean jesarrita.

Txosten hau paratzerakoan, halabeharrez gogoratu zitzaidan orain duela hogeitsu urte liburu bi kaleratu zirela elkarri dagozkion izenburuak zituztenak. Baten izenburua «Zer dugu Orixe-ren alde?», eta bestearena: «Zer dugu Orixe-ren kontra?». Aspaldiko idazti haiek gogoan nituela, oraingo honetan ere halako txosten bi mami litezkeela bururatu zitzaidan: «Zer dut *EGLU*-ren alde?» bata, eta «Zer dut *EGLU*-ren kontra?» bestea.

Aldekoa, ordea, ez dut egin. Idazteko astirik ere izango ez nukeen liburu lodi-lodia izango litzatekeelako alde batetik, eta Gramatika batzordeak berriaz galarazi didalako bestetik. Gramatika batzordekoei ez zaiela interesatzen beren lanen laudoriorik entzuterik gaztigatu baitzidan batzordeko idazkari jaunak gutun batean.

Beraz, Gramatika batzordeak berak hala nahirik, *EGLU*-ren kontrakorik besterik ez duzue entzungo nire gaurko txostenaren luzeran. Holandarrok omen dakigunez, argi eta garbi mintzatzeko naiz, hitz-erdika ari gabe. Batzue-

tan zorrotzegi edota gordinegi mintzatzen naizela ere iruditzen bazaizue, kontuan har euskal gramatikaren etorkizunari begira hobe beharrez ari naizela, ez eta inola ere batzordeak bururatu duen lana gutxietsi edo arbuiaitu nahian. Baldinba ez zait murriztuko hementxe ditudan adiskideen kopurua mintzaldi hau bukatutakoan!

Zerbaitekin hasi behar eta partitiboarekin hasiko naiz. *EGLU*-n zehar, partitibo deitura honen azpian *-ik* tankerazko atzizki guztiak bildurik ikusten ditugu. Euskal gramatikarien tradizioari darraion jokabide hau nahasgarritzat daukat. Zehazkiago esateko, *hutsik*, *alferrik*, *zintzilik*, *damurik*, *eginik*, *izanik* eta beste nahi adina besarkatzen dituen adberbio mota eratzen duen atzizkiari bederen beste deitura bat emateari gomendagarri deritzot oso. Egia esan, babiliteke *-ik* tankerazko atzizkiak oro, ablatiboa edo gauzatuz, aitzinako euskara batean iturburu batekoak izatea, hori bai. Gaurko euskaraz den bezainbatean, hala ere, oso funtzio ezberdina daukate adberbiokoek eta besteek, eta komeni ere zaigu bestelakotasun hori deitura ezberdinez ohararaztea.

Orain, banoa *EGLU*-ren lehen liburukiaren zenbait pasarteri iruzkinak jarzera, 97. orrialdearekin hasiz.

Inor eta *ezer* izenordainak aztergai dituela, honela mintzo zaigu *EGLU*: «Baiezkako perpausetan ere zilegi litzateke honetarako izenordain mugagabeak erabiltzea...»

Hor, alegiazko adizkiaren zergatia ezin dut ulertu: zilegi da edo ez da zilegi, baina «zilegi litzateke»? Nolako baldintzapeetan, arren?

Gainera, bi izenordain mugagabeak aipatu badira ere, ematen diren adibideak *inor*-ekikoak baizik ez ditugu, *inor* baiezkako perpausetan beste *nor-bait* adierazteko erabil daitekeela erakustearren, alegia. Horrela, *inor*-en erki-de bizigabea den *ezer*-k erabilera bera ote daukan egon daiteke irakurlea, eta *EGLU*-k, argitasunik eskaini gabe, isil-isilik dirau.

Txotxakeria ematen du agian erantzuki honek, baina interesatua bezala mintzatzen natzaizue. Hain zuzen ere, ordu luzeak eman ditut aurten *ezer*-ekiko etsenplu horiek bilatzen, azkenean bat, eta bat bakarra, aurkitu arte. Gisa honetako ikerlanak egitea, berriz, Gramatika batzordearenganik igurikitzen dut; horretarako ezarria baita, eta horretarako baliabideak ere baititu, Korpus elektronikoa eta guzti, bere kabuz ari den ikertzaile arrunta bainoago.

Orrialde bertan eta hurrenengoan badut beste esankizunik. *Inor* izenordainaren beste erabilera bat azaltzean, hamazazpigarren mendeko adibideak aurkezten dira soilik. Ea erabilera hori gaurkoz baliagarria den galdetu behar du nire antzeko irakurle ezjakinak. Hurrengo orrialdean, *deus*-en izentasuna frogatu behar duten hiru aipamen zahar-zaharrek gauza bera galdearazten dute. *Deus* erabiltzen duen ekialdeko lankide baten etsenpluak hor jarri behar ziren, dudarik gabe.

105. orrialdetik hasita, bihurkariak ditu aztergai *EGLU*-k. Eta harrigarri dena, bi orrialde arlote baizik ez zaizkie eskaintzen. Ataltxo honen bukaeran, alabaina, aitortzen da, kako artean bada ere, badela hemen «istilu bat, egiatan azterketa sakonagoa merezi lukeena», istilu hori egitura inbertsonalei dagokiena delarik.

Bejondeiola *EGLU*-ri! Inbertsonalak aldi baterako utzirik, bada egiatxo bat ohartarazteko gogoia daukadana. Bihurkarien erabilera dela eta, istilu bat ez, mila istilu badira azterketa sakonagoa merezi luketenak.

Hastekoz, *EGLU*-k 106. orrialdeko lehendabiziko lerroan baieztatzen duena ez da zeharo egia. Ez da egia beti eta derrigorrez atzera begiratu behar dugula perpausean, bihurkari baten aurrekoa bilatzeko. Delako aurreko hori atzekoa ere izan daiteke, honako etsenplu hauek erakusten digutenez:

- (1) a. Nere buruak ere ematen dit franko lan. (Labayen, *TOE* I, 92)
- b. Zeure buruak egin zaitu esklabo, ez beste inork. (Saltarelli, 113)
- c. Neure buruak kezkatu eta izutzen nau.
- d. Bere buruak lilurutzen du nire anaia. (Saltarelli, 113)
- e. Zeuen buruek zorutzen zaituztete.
- f. Neure buruak gidatu nau.

Bigarrenez, izenondorik edota erakuslerik onartzen al dute bihurkariak? Hau da, ontzat ematekoak al dira honako hauek?

- (2) a. Bere buru gaixoa bota zuen itsasora.
- b. Nik hala esan nion neure buru triste honi:...

Hirugarrenez, hiztunak zalantzak izan ditzake, *EGLU*-k argitzen ez dituenak. a ala b?:

- (3) a. Zer diozu zeure buruaz?
- b. Zer diozu zutaz?
- (4) a. Neure buruarekin haserre nago.
- b. Neurekin haserre nago.
- (5) a. Neure buruarengatik ez dut hori esan.
- b. Neurengatik ez dut hori esan.

Laugarrenez, zer gertatzen da posposizioak jokoan daudenean? Nondik nora *bere buruaren kontra* bai, *bere buruaren gainean* bai, baina **bere buruaren azpian* ez?

Bosgarrenez, zer jazoten da bihurkariekin izen-sintagmaren barruan? Esquetan neure argazki bat badaukat, hau neure buruaren argazkia izan al daiteke?

Seigarrenez, aurrekorik gabeko erabilera logoforikoaz zer esan? Imitagaria ote, Mitxelenaren erabilera hau (*MEIG VII, 37*):

- (6) Nik, egia esan, begi zorrotzak izan ditut hutsak ikusteko (batez ere, huts horiek geure buruarenak, neronenak barne, direnean),...

Galderak nahi adina gehi litezke, baina orain artekoak aski dira erakusteko bihurkarietara buruz lan seriozkoak prestatzen saiatu ere egin ez dela *EGLU*.

EGLU-k elkarkarietara orrialde gehiago eskaini arren, gutziz azalekoa geratzen da hauen trataera. Elkarkari baten aurrekoak perpausuan zein funtzio bete dezakeen, zeharo aztertu gabe uzten da, esaterako. *Bata bestea* dela eta, hiru adibide huts ematen dira, besterik deus ez. Horren aurrekoaren nolokotasunaz ezer ere ez dugu ikasten. *Batzuk besteak* eta *bizkaierazko bakoitzak bestea* ez dira aipatu ere egiten.

173. orrialdean hasten den «*bat*» zenbatzailea eta «*a*» artikulua izenburudun atal luze samarra ez zait inondik ere gogobetegarri, aski axolagabeki taxutu dela iduritzen baitzait. Bai gure testuetan bai gaurko hiztunengan hain korapilatsua den kontua ahalik argien uzten ahalegindu behar zukeen *EGLU*-k, eta ez «aurretik esandakoa biltzen eta ordenatzen saiatu» bakarrik.

Atalaren izenburua bera ere ez da aproposi. Hor aztertuko diren esaldi gehienetan behintzat, zenbatzaile barik muga-hitz edo artikulua dugu *bat* hori: ondotoxoa baitakigu ez dela haizerik zenbatzen ari *haize izugarri bat* ahotan hartzen duena. 180. orrialdean *bat zenbatzailea* daukaten aipamen batzuk eman nahi ditu *EGLU*-k. Etsenplu hoberik aurki zezakeen: (320)a eta b izan ezik, beste guztiek *bat* artikulua dutelako susmotan nago eta.

176. orrialdea behin eta berriz irakurrita ere, ez nago batere ziur ondo ulertu dudala, hain zait estonagarri aditu uste dudana. Generikotasunaz ari da *EGLU* hor. Hizkuntzalaritzan generikotasuna bereizgarri edo tasun jakin bat izanik, badakigu gutxi gorabehera zer den, eta ez dirudi adigai aldakorra denik. Baina, aldakorra balitz ere, zer? *Tratorea* erosi dut esaten dute euskaldun batzuek, besteek, aldiz, *tratore bat erosi dut*. Ezberdintasun hau, generikotasunari buruzko irizpide ezberdina dutelako dela sinetsarazi nahi al digu *EGLU*-k? Alegia, *tratorea* dioena, zerbait generikoa erosi duelakoan dagoe-la? Hobe dugu aurrera pasatzea.

189. orrialdeak dakarren aipamen zerrendak ematen dit aukera *EGLU*-n zehar maizegi nabaritzen den joera batez haserretzeko: gauzatxo xinpleenak ahalaz eta adibide bihurrienen bidez azaltzekoaz, alegia. Orrialde hau belzten duten sei aipamen luzeak ez dira deusetako on. Zein irakurle dago horien beharretan *bat* eta *bi* ez beste zenbatzaileak izenaren ezkerreko aldean kokatzekoak direla jabetzeko? Hemen ere, beste orrialde askotan bezala, arauaren kontrako aipamenak soilik liriateke interesgarriak, hala nola, Lafonek behin Leizarragaren testu batean atzemandako *soraiio hamarrek*. 224. orrialdean, *asko*-ren balioak aztertzean, zenbatzaile honek aditzondoaren balioa har deza-

keela erakusteko, edozein perpaus iragangaitzez balia zitekeen *EGLU*, *Itziar asko ibiltzen da* adibide hartuz, esaterako. Alderantziz perpaus iragankor bat adibide hartuz, ordea, okerreko bidea hautatu du *EGLU*-k. Argi baitago *horrek asko daki* bere adibidean *jakin* aditz iragankorra nor-sintagma baten behar-rean dela, eta hori *asko* bera baizik ez dela. Adibide horretan, beraz, *asko* izen-sintagma dugu, ondorengo adibideetan den bezalaxe.

Liburukiaren erdi-erdiraino heldu gara irartoker, edo inprenta-hutsik aipatu gabe. Izan ere, gutxi dira, eta daudenak erraz zuzen ditzake irakurleak, gehienetan behintzat.

Irakurleen nahasbide izan daitekeen trukaera bat aipatu beharrean nago hala ere: 279. orrialdea eta 282.a elkarren tokian gertatu baitira.

346. orrialdera helduaz batera, gauza serioetara hurbiltzen gara, hor leku-denborazko kasuak lantzeari ekiten baitio *EGLU*-k. Bada, hor hasten den atal luzean zehar auzi bakar bat hartuko dut eztabaidagai: *-ko* atzizkiaren izaera eta jokabidea.

Dagoeneko salatu ditudan hutsegiteak huskeria hutsal hutsak dira nire begietan, orain jorratzera noan kontuaren aldean; kontua dela atzizki hau lekuzko kasuen artean sartzeko erabaki galgarria.

Badirudi burubide honekin *EGLU* bera ere ez dela oso lasai gelditzen. Bestela, nondik nora hainbeste aitzaki-maitzaki bere burua zuritu beharrez? Honetaz doan 347. orrialdeko paragrafo luzearen azken lerroak baizik ez ditut irakurriko, luzetxo gerta ez dakigun: «... hiztunak batetik *non* eta *nongo* kasuen arteko ahaidetasunaren edo erlazioaren kontzientzia galdu eta kasu berrizat dauka, eta gramatikariak bestetik halakotzat onartua aspaldidanik *nongo* delako kasu hori, *norako* eta *nondikako* ez bezala.»

Hauek oro ezer frogatzen ez duten sasiarrazoak ditugu. Hiztunak –edozeinek?– kasu berrizat daukan edo ez daukan, ez nik, ez *EGLU*-k, ez dakigu inondik ere. Gogorarazi nahi nuke, bestalde, gramatika deitzen duguna ez dela, ez eta hurrik eman ere, hiztunen iritzien ispilua; normalki oharkabe dirauelako, doi-doi jakite bat izenda daitekeen hizkuntz gaitasunari buruzko teoria bat baizik, *EGLU*-ren hirugarren hirugarren liburukiaren sarrerak aski ederki adierazi digun legez.

Gainerakoan, «dirua edo bizia» oihukatzen digun bide-ohoin baten antzera ari zaigu *EGLU*: gure atzizkia *nongo*-ren ordezkartzat edo kasu berrizat hartzeaz osterantzeko aukerarik ez balego munduan.

Azkenik, egia bada ere orain arteko gramatikariek atzizki hau lekuzko kasutzat jo izan dutela, egia ere bada ez zutela horretarako inongo arrazoi sakonik. Aitzitik, beren garaiko umeak izanik, gure morfosintaxia Latinaren eredu-zko kasu-sistema bati moldekatzeaz besterik ez baitzitzaien bururatu ahal.

Oraintsu arte horrela gertatzea ezinbestekoa bazen ere, gaurko hizkuntzalaritzaren aurrerapenen aitzinean zinez lotsagarria eta etsigarria dugu *EGLU*

ere galbide horretan barrena abiatzea, behinolako gramatikalarien oinatzai jarraitzeko aitzakian. *EGLU*-k aukeratua duen bidea galbidea bada, atzizki hau zer den galdetu behar dugu berriro. Bada, atzizki honen sekretu guztia honetantxe datza: adizlagunei eransten zaien izenlagungilea izatean. Berriz diot: adizlagunei eransten zaien izenlagungilea dugu. Adizlagunei bakarrik, ote? Bai jauna, bakar-bakarrik.

Hemen, bi gauza dira kontuan hartzekoak, ordea. Lehen-lehenik behar dut ohartarazi ez dudala adizlagunen multzoa *EGLU*-ren modura mugatzen. Honen aditzondotzat dauzka *gaur*, *hemen*, *honela* eta antzekoak, *une honetan*, *leku honetan*, *gisa honetara* eta abar bezainbeste adizlagunak baitira niretzat. Kontuan hartu behar da gero, adieraziaren aldetik mintzo naizela, ez azaleko formaz, zeren eta *-ko* atzizkiaren aurrean kasu-marka batzuek lekua husteko lizentzia baitute.

Inesiboaren kasuan, hau berau Mitxelena zenak erakutsirik badakigu, baina kontua bukatu gabe utzi zigun irakasle hark, ez baitzen konturatu beste kasu-marka batzuekin berdín gertatzen zela, nahiz ez den derrigorrezko moduan, aukerazkoan baizik. Izan ere, euskalkiz euskalki eta are hitzunez hitzun ezberdin izan daitezkeen baldintzak beteta, *-ko*-ren aurrean isilpean utz daitezkeen kasu-markak bost dira: inesiboa, elatiboa, adlatiboa, sozilatiboa eta instrumentala.

Inesiboaz den bezainbatean, ez dut deus esan beharrik, *-ko* atzizkiak maiz samar *-an* gehi *-ko* ordezkatzen duela *EGLU*-k ere ezagutzen baitu, Mitxele-rengandik ikasita edo. Beste lau kasuez, ordea, hitz bi esango ditut, elatiboa-rekin hasirik.

-ko atzizkiaren aurretik elatiboa kentzeko joera hegoaldean hasi zela eta gero eta sendoagotuz doalakoan nago. Adibide bat aipa dezadan. *Har ezazu nire bihotzeko agur gartsua* edo halako zerbait idatz dezakegu guk eskutitz bukaeran, baina orain ia berrogei urte San Martin jaunak aita Onaindiari egin zion gutun batean *nerre biotzetiko agur gartsua* jarri zuen. Bibliaren itzulpenak ere txit interesgarriak dira kontu honetan. Lukas-en lehen kapitulutik hartutako *de domo* David hura, *Daviden etxetikako* nahiz *etxetiko*-ren bidez euskaratu dute iparraldeko itzultzaile guztiek, hegoaldekoek, berriz, *etxeko* edo *jatorriko* itzuli dutelarik, *-tik* gabe. Joan-en seigarren kapitulan aipatzen den *panem de coelo*, ordea, *zerutiko* nahiz *zerutikako ogia*-ren bidez guztiek itzuli dute, oraintsu arte, behinik behin: 1980-ko *Itun Berriak* eta 1994-ko *Elizen arteko Biblia*-k *zeruko ogia* ezarri dute eta.

Adlatiboari doakionez, *-rako*-ren ordez *-ko* bakarrik agertzea hain gauza arrunta da non eta *EGLU*-k uste baitu berrikeria dela *-rako* darraion izen-sintagma batekin erabiltzea. Oker dago, noski. Leizarragaren *Testamentu Berrian* honelakoak aurkitzen baititugu: *gure çuetaratco bidea* (1 Thes. 3.11), *Jerusalemerratco bidea* (Lk. 13.22) eta *itsassoraco bide aldean*, *itsasorako bidea* Haraneder, Duvoisin eta Uriartek ere bazerabiltelea.

Inesiboa ez ezik, bai eta elatiboa eta adlatiboa ere, *-ko* atzizkiaren aurrean kenduzkoak direlako ez dugu gramatikalari baten joko hutsa, egun oroko hizkera argitu ahal digun ulerkera bat baizik. Teoria honek, esate baterako, erraz ulertarazten digu *Bilboko tren*a bezalako sintagma bat hirutara nola har daitekeen: Bilbon dagoena, Bilbotik datorrena edo Bilbora doana.

Gorago azaldu denaren ondoren, argi dagoke *-tako* nahiz *-etako* formak agertzea lekuzko kasu-marka bat ixilpean utzi delako seinalea dugula, baina pluralean ere *-ko* hutsa ikusten dugunetan bestelako kasu-marka tartean dela, soziatibo nahiz instrumentala. Begira diezaiogun orain Orixeren esaldi bati:

(7) a. Ez da bihotzaldi handiekiko poeta. (*Euskal Esnalea* 1927, 192)

Guk, beharbada, beste esamolde bat nahiago genuke

(7) b. Ez da bihotzaldi handiko poeta.

Beraz, soziatiboa ere *-ko*-ren aurretik kengarria dugu. Beste adibide bat *EGLU*-k berak eskaintzen digu bere *Eraskina*-ren 54. orrialdean:

(8) a. Jantzi gorriarekiko gaztea

b. Jantzi gorriko gaztea

Instrumentalazko kasu-marka, gehien-gehienetan ezin-utzizkoa delarik, sintagma batzuetan, hala ere, aukerazkoa dugu, hala nola, *indar handi(z)ko*, *zorione(z)ko*, *gaitze(z)ko*, *izugarri(z)ko* eta abar. Leizarragaren *Testamentu Berrian* ere bada esenplurik: bai *alliantzazko arkha* (*Apok.* 11.19), bai *alliantzako arkha* (Hebe, t. 9.4) aurkitzen baitugu.

Hemen zehaztatu dudan hurbilkera hau ontzat ematen bada, ez daukagu inondik ere lau *-ko* ezberdin bereizteko beharrik, *EGLU*-k egitera behartua den bezala. (Ikus *Eraskina*, 49. orrialdean.) Badira, bai, aipatu ez ditudan xehetasun batzuk; baina oro har, *-ko*-ren erabilpen guztien kontu ematen ez dago inolako zailtasunik.

Gure atzizkiaren auzia amaitutzat emanik, ia aipatzea ere merezi ez duen okertxo bat aipatzera noa 374. orrialdean aurkitzen dena: *ardura* izenondoa ez da inoiz adlatiboa izan, erdaratikako mailegua da eta.

392. orrialdean, *arimarako* forma agertzen da, Fray Bartolomek erabilia. Forma honetaz harritu egiten da *EGLU* «arima, ezer bada, bizidunetan bizidunena» delakoan.

Ni, ordea, harridura horretaz harritzen naiz. Ez al daki *EGLU*-k betidanik *arimatik arimara* esan dela, eta gaur ere horrela esan behar dela, sekula ez **arimaḡandik arimaḡana*? Ez al daki *EGLU*-k hizkuntza batek aintzat hartzen dituen kategoriak ez direla nahitaez gaurko jakintzarenak, ez eta jakintza hori teologia denean ere?

Lehengo liburuki honekin bukatzeko, beste arlo bat aipatuko dut soil-soilik: maila aditzondoena. Hauei lau orrialde eskaini zaizkie; halarik ere, dagoen joserari buruzkorik deus gutxi ikasten dugu. Zoritxarrez, zenbait gertakari biziki interesgarri gelditu dira aipakizun, hala nola, *oso* aditzondoak doakion sintagmatik kanporatua

- (9) a. Paula, Malentxo aña ezarren, oso zen emakume itxurazkoa ta maitagarria. (Ag., Garoa, 171)
- b. Inspektorearen erantzuna azkarra izan zen oso. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 44)
- c. Baina orain bestela da oso. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 218)

Gainera, ez zaigu zehazten zein den arruntena: *izugarri borroka latza* ala *borroka izugarri latza*.

Eraskina delako liburukiaz ez naiz luzaz arituko, hor eztabaidagai bakarra *-ko* atzikiari buruzko zatia izango litzatekeelako, eta honetaz aski mintzatua naiz. Soilki ohartaraziko dut 69. orrialdeko *logela* ez dela etsenplu egozia [aditzoin + izena] egiturazko izen elkartua aurkezteko, zeren eta, *lo* forma, *lotu*-ren aditzoina bada ere, izen gisan askotaz usuago erabiltzen baita.

Bigarren liburukiaren 27. orrialdeko *bazkal ostein* etsenplua ere ez dugu adibiderik egokiena, ez baitakigu *bazkal* forma hori *bazkaldu*-ren aditzoina ala *bazkari*-ren forma elkartua den.

Bigarren liburukiaren 45. orrialdean, *hitz egin* eta antzeko esamoldeen egitura ezagutzeko garrantzi handiko baieztapen bat egiten da: honako bi perpaus hauek esanahi ezberdina dutela, alegia.

- (10) a. Ez du hitzik egin. (= ez du ezer ere esan)
- b. Ez du hitz egin.

Niri, ordea, bestela esan didate hiztun batzuek: (10)a-k, alegia, bi esanahi omen ditu, bata (10)b-ena bera delarik.

Liburuki honetako hiru lekutan esaten zaigu *jakin* aditzak ez duela *nori* sintagmarik onartzen, eta hortaz honako esaldi hauek txartzat jotzen dira:

- (11) a. Aitak egia jakin dio. (*EGLU II*, 47)
- b. Berehala jakin dio egia osoa. (*EGLU II*, 59, 62)

Zergatik gaitzesten dituen *EGLU*-k, ordea, ez dut ikusten. *Orotariko Euskal Hiztegiak* dakartzan sei aipameneren arteko bi honatuko ditut:

- (11) c. baita bere ciur jaquin deusat, gordeten dabela sarri bere gosarrija, (Mogel., *Peru Abarka*, 10)
- d. Saulek au ere jakin zion, eta eskua ezarri naiez egunoro zerrakion. (Lardizabal, *TZ I*, 26)

Bigarren liburukiaren 51. orrialdean hasten den «Sail aldaketak» deritzan zati interesgarriak ematen dit aukera merezi duten arretaz perpaus inpertsonalen gainean eta bereziki horien arteko subjeto bizidunen gainean berba egiteko. Ekingo diot, beraz, gai honi *EGLU*-ren atal horren barruko 56. orrialdea irakurrita, ez dago dudarik *EGLU*-k subjeto biziduneko perpaus inpertsonalak txit begi gaiztoz ikusten dituela. Hauek direla eta, inguruko hizkuntzen eragina aipatzen du, eta azkenik, kupidagabeko dekretu baten medioz zilegitasuna erabat ukatzen die batere salbuespenik gabe. Entzun *EGLU*-k dioena: «Baldintza bat bete behar da, dena dela: *nor-nork* motako aditz oinaz osatzen dugun perpausetan, objektu funtzioa betetzen duen izena minus bizidun motakoa izanen da, esan nahi baita ez dituela izaki bizidunak adieraziko, bizigabeak baizik. Horrelakoetan bakarrik zaigu zilegi euskaraz *dut* adizkia *da* motara aldatzea, balio inpertsonala emanez.»

Debeku hau erabatekoegia dela konturatzeko, *EGLU* bera irakurtzea aski dugu: hiru orrialdez lehenago honako adibide hau ematen baita: *Noiz hiltzen dira zerriak zuen herrian?* Oraingo honetan, galdera hau bitara interpreta daitekeela baieztatzen du *EGLU*-k, inolako itzuli-mitzulirik gabe. Beraz, perpaus inpertsonalen auziak *EGLU*-k egin duen baino astiroago aztertzea merezi du, eta, zuen baimenarekin, azterketa honi hasiera bederen emango diot hementxe bertan.

Subjeto bizidun perpausetara mugatuko naiz, bestelakoak ez baitaude auzipean. Areago, erabiliko ditudan aipamenetan azaleko subjetoa gizakia izanen da beti, sarritan lehen nahiz bigarren pertsonaz adierazirik.

Hasteko, beti legez, «Divide ut imperes». Esanahiaren arabera, hiru multzotan sailkatuko ditut perpausok: inpertsonal pasiboak, inpertsonal elkarkariak eta inpertsonal bihurkariak.

Aurren-aurrenik, Azkue eta Villasanteren gaitzespenak gorabehera, hiruoitzi-jatortasuna ukatzeko arrazoi sendorik ikusten ez dudala aitortzen dut. Inguruko hizkuntzen eragina barik, euskal sintaxiak betidanik izan duen berezko ahalbidea ez ote digute erakusten? Badakit, bai, hizkuntza erromanikoetan *se* hizkiaz ornaturikako perpausok hiru adierazpenok badituztela. Honek ez du inola ere esan nahi, ordea, euskal perpaus horiek erdal perpaus hauen erudura eratu zirenik. Gramatika orokorren barruko tresneria batek sortu dituela bai batak bai besteak aise gertagarriago deritzot nik.

Oraintxe berezi ditudan hiru multzoak banaka jorratuko ditut, jokoan daudekeen debekuak edo ez baitute ezinbestez denetan berdin izateko beharrik.

Inpertsonal pasiboekin hasiko naiz, gaur goizekoak izan gabe euskal literaturan zehar beren lekua izan dutela erakutsiz.

Buruenik, hona hemen bere tesi oraindik argitaragabeen Adolfo Arejita doktoreak aipatzen dituen etsenplu klasiko batzuk:

(12) a. Iltean il ninčan, da aztu ninčan. (Lcc. 191)

- b. Concebitu ninçam maldadeetam. (Ikus, A.Unzueta, *Nuevos datos ... FLV XIV-39*, 332)
- c. Saldu nintzen dirutan, asco sari handitan. (Azkue, Cur. Doc. Euskera VI(1925), 60-6)
- d. Israeltarrac berac ... ecusi ciran Ydisco baten Ichura bat eguin... (Mg., *C.B.*, 92)
- e. Ez zaree icusten fiesta, Plaza ta onelaco olgantzeetan. (J.J.Mg., *Bas.Esc.*, 101)

Jesu Christoren Lau Evangelioac Batera Alcarturic izenburua dakarren Añibarroren liburuia argitara eman duen Maria Pilar Ciarrusta andreak ere aipamen bi eskaintzen dizkigu, liburuari egindako sarreran:

- (13) a. Bata eroango da, ta bestea gueldituco da. (Añibarro, *J.C.L.E.*, 379)
- b. Eta euretaric beste *iñora* biraldu etzan Elias, ezpada ... (Añibarro, *J.C.L.E.*, 267)

Zer esanik ez, Leizarragaren Testamentu Berrian eta beste zenbait idazle zaharren obretan ere badira etsenpluak, esaterako:

- (14) a. Orduan eçaguturen dut ecagutu ere naicén beçala. (*I Cor.* 13.12; Lz.)
- b. Hilén sperañáz eta resurreccioneaz ni acusatzen naiz. (*Act.Ap.* 23.6; Lz.)
- c. Bata recebituren da, eta bercea utziren. (*Mt.* 24.40/41; Lz.)
- d. Bata harturen da, eta bercea utziren. (*Lk.* 17.34/35/36; Lz.)
- e. Baina gomitatu aicenean, habil, iar adi azquen lekuan. (*Lk.* 14.10; Lz.)
- f. eta guiçonaren Semea tradituren dela crucifica dadinçat. (*Mt.* 26.2; Lz.)
- g. Balinetan vide gabe acusatu baguira ... (B. Etxepare, XIII-26)
- h. Erho edo deus guti etsten bazare,... (S. Pouvreau, *Philotea*, 213)

Urrengo aipamenak ez dira hain aspaldikoak, Txirritarenak baitira, 1860. urtean jaio eta 1936. urtean hil zen bertsolari famatuarenak:

- (15) a. Urrengo larogei urtean ni ez naiz aztuko Kantabriko partean. (*Txirritaren Bertsoak II*,59)
- b. Pixka batian ez naiz aztuko sartuagatik lurpian. (A. Zavala, *Txirrita*, 242)

Bi esaldi hauek, iaz laurogeita hamalau urterekin zendu zitzaigun Maria Dolores Agirre andreak nekerik gabe ulertzen bazituen ere, gaurko hiztun gehienentzat zeharo adiezin bihurtuak ditugu. Hori dela eta, gisa horretako per-pausak debeku baten bidez baztertzea egoki litzatekela uste dut. Ez noski, jatorrak ez direlakoan, hizkuntza bera aldatu egin zaigulako baizik.

Debekua behar dugu, bada, baina nolako debekua? Oraindik ere zerriak bi modutara hil badaitezke, ezin esan, behintzat, azaleko subjektua ez dela bizidun motakoa izan behar. Giza-subjektuaren kontrakoa ere ez, honako esaldi hau ere bitara har daiteke eta

(16) Heriotzera kondenatuak nola hiltzen dira Texas-en?

Hortaz, irteera bakarra lehen eta bigarren pertsonen kontrako debekua ezartzea dugu. Goazen orain bigarren multzora, inpertsonal elkarkarienera.

Gure hizkuntzak elkartasuna adierazteko baliabide zehatzagoak ukanez gero, ez da batere harritzekoa inpertsonal hauek berandu samar agertzea. Badaiteke nire ikerketa motzegi izatea, dena dela, aurkitu dudan etsenplurik zaharrena 1848an jaiotako Beovide idazlearena izan da:

(17) Elizako lanak bukatzian, agurtu ziran ta laztandu iru Santuak. (Bv., *AsL.*, 135)

Geroxeago, Domingo Agirrereren eta Joseba Etxeitaren lanetan bereziki ez dira inondik ere bakanak bigarren multzoko inpertsonalok:

- (18) a. Onenbestegaz agurtu gara,... (Ag., *A.L.* 36)
 b. Non ikusiko gara biar? (Ag. *A.L.* 72)
 c. Riktrudis ta Adalbaldo uste-ustean barik neure etxean ezagutu ziran. (Ag. *A.L.* 141)
 d. para-irri gozoz agurtu ziran,... (Ag., *G.*, 41)
 e. Gizadi guztiak uste eban ezkonbarriok gutziz maite zirala. (Etxta, *E.E.* 1912, 173)

Gipuzkeraz, bai eta gaurko idazle batzuen lanetan ere badira etsenpluak:

- (19) a. Anaiak bezela maite ziran. (Alz., *Bern.*, 44)
 b. Ez dira egunero ikusten, Maitek ezin duelako. (Urretabizkaia, *Sat.*, 74)
 c. Bitan bat, Maria Luisa: ez gara ikusten ala gehiegi ikusten gara. (Urretab., *Asp.*, 7)
 d. Pabiloiaren atean agurtu ginen. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 129)

Oraindainsi aipatu diren perpausak ontzat emateak ez deritzat euskarari kalte egingo dionik nolanahi ere, ez dut uste hain usu erabiltzen den *elkar* hitza erabilera honek suntsiaraziko duenik, oso aditz gutxik onartzen dute eta. Kontua da ez direla inpertsonal elkarkariak edozein aditzekin eratu ahal. *EGLU*-rekin batera, honako adibide hauek txartzat ematen ditut nik ere:

- (20) a. *Gizon horiek hilgo dira. (*EGLU I*, 112)
 b. *Horiek erretzen dira. (*EGLU I*, 112)

- c. *Gu jantzi egingo gara. (*EGLU I*, 112)
- d. *Mikel eta biok ikastolan jo gara. (*EGLU II*, 56)

Behar dugun debekua honelatsuko zerbait dateke: Perpaus iragankor baten aditz nagusia zinez bere objektu zuzena aldatu egiten duenetakoa badugu, perpaus hau ezin inperzonal dezakegu elkarretasuna adierazteko, eta bestela bai.

Hau legetzat harturik, *agurtzen gara*, *ezagutzen gara*, *ikusten gara*, *laztanten gara* eta beste batzuk onargarriak lirateke, *erretzen gara*, *hiltzen gara*, *jotzen gara*, *zauritzen gara* eta abar, aldiz, gaitzesgarriak.

Hirugarren multzoa inperzonal bihurkariet osatzen dute. Hona hemen idoro ditudan aipamenik zaharrenak:

- (21) a. Zeren eçagutzen bainaiz çordun çure aldera. (*E.Z., Man II*, 26)
- b. Ene ezin hautsizko fideltasunaz emaiten natzaizu. (*S.P., Phil.*, 70)
- c. Beira zaite ispilu andian. (*El.* 73)
- d. Debru nere etsai higuinari eman hatzaio. (*Dh.* 146)

Hurrenengo hauek Adolfo Arejita doktoreak Mogelen idaztietan topatutako batzuk ditugu:

- (22) a. Acusetan naz, Jauna, ... (*Mg., CO*, 22)
- b. Acusetan danian bat... (*Mg., CO*, 177)
- c. Beguiratu zan oñetara. (*Mg., Ip.*, 99; *Altz.*)
- d. Beguira zaite ispillu andi baten. (*Cat. Elg.*, 224)
- e. Curutceco eriotziaz esquini jacon gugaitic bere Aita Jaincuari. (*Cat. Elg.*, 235)
- f. Gorde biar zaree nescatilletaric. (*Mg., P.A.*, 107)
- g. Egun guichijan zara icusico indar galantac arturic. (*Mg. P.A.*, 65)
- h. Icusi zanian arerijo loy ta donga á bere echeti campuan. (*Mg., CO*, 115)
- i. Ta katigaturic ikusi zanian, asi zan orruaz. (*Mg., Ip.*, 65; *Altz.*)

Beste hemeretzigarren mendeko aipamen batzuk:

- (23) a. Ze umiltasun andiaz imini cinean Yudegu gogor-amorrotuen es-cuetan. (*Añib., E.L 3*, 173)
- b. Ichi zaite jausten emendic bera. (*Añib., J.C.L.E.* 196)
- c. Emacumea alan aguerturic ikusi zanean, icaraturic (*Añib., J.C.L.E.* 229)
- d. Ta Simon Pedroc janci eban bere soñecoa ta bota zan ichasora. (*Ibid.* 434)

- e. Amar ayetatik bat, txit sendatu ikusi zanean, itzulita ... (Lardizabal, *TB*, 75)
- f. Ematen natzaizu osoki eta behin bethicotz. (Joannategi, *S.Bi*, 386)

Eta azkenik, gure garaiko aipamen batzuk:

- (24) a. Ur-ertzean begiratu naiz. (Ibiñ., *Virgil*, 34)
- b. Norbaiti eman nintzan maitearen maitez. (Xalbador, *Odol.*, 341)
- c. Ez ginen inportanteak sentitzen. (Urretabizkaia, *Asp.*, 23)
- d. Ez zen sekula erabat ematen, beti gordetzen zuen nitasunaren mugekin lokarri bat. (Urretabizkaia, *Asp.*, 30)
- e. Carmen ezagutu ez banu, ni ere ez nintzan libratuko. (Urretabizkaia, *Asp.*, 32)

Horien guztien kontra debekurik eraiki behar ote du *EGLU*-k? Utikan! Nahiz eta *askotan bere burua* erabiltzeaz argitasun garbiago lor daitekeen, egitura inperzonalaz ere baliatu nahi bada, ez dut inolako arrazoirik ikusten aukera hori galarazteko.

Euskara batuan ere, bihurkaritasuna adierazteko bi aukera egotea ez zait batere kaltegarri iruditzen, bai ordea, aberasgarri.

Epai honekin inperzonalen auzia amaitutzat emanda, har dezagun atsendalditxo bat huskeria batzuk aipatuz.

50. orrialdean, *merezi* eta *balio* aztergai direnean, zalantzan dabil *EGLU*: «gaur egungo erabilera nahasia da; ez dugu jakiten benetako *nork* ez dutenak bezala ala *nor izuna* sailekoak bezala erabili behar ditugun» dio, eta hortaz, bi aukerak ontzat ematen ditu:

- (25) a. Horrela jokatzek ez du balio.
- b. Horrela jokatzea ez du balio.

Liburuaren 99. orrialdean, aldiz, zalantza horiek zeharo desagertu dira. Hor esaten baita halako predikatuek aditz izena absolutuan uzten dutela, adibide hau emanez:

- (25) c. Ez du balio horrenbeste lan egitea.

Gehiegi al da gramatika bati bere buruarekin ados egoteko eskatzea?

Huskeria bila nabilenez gero, aipa ditzadan orain zenbait adibide oker: 418. orrialdean ez dakusat (52)^b adibidea zertara datorren, 445. orrialdeko (27)^a ez da *gura ukan*-en adibidea, ez eta hurrengo orrialdeko (28)ⁱ *izan* laguntzailearena, ez eta 512. orrialdeko (96)^b menpeko perpaus barruko *omena* ere.

Beste huskeria bat: 454. orrialdean, *behar* izenak singularreko kasu-mar-ka baizik ez duela hartzen dio *EGLU*-k. Ahaztu zaio esatea, haatik, iparraldean *beharretan* ere usu erabiltzen dela, adibidez:

- (26) a. Gu, aldiz, haren beharretan gare... (Arb., *Igand.*, 65)
 b. Etzirena oro Jainkoaren beharretan? (Arradoy, *San Frantz.* 312)
 c. Gizonak, bethi emazteen beharretan! (Larzabal, *Iru*, 18)
 d. Mintzoa asmatu eta landu bearretan aurkituko da. (Villasante, *Jainkoa*, 72)

Gramatika batean aurkitzea harrigarri zaigun sintagma bat agertzen da 458. orrialdean *zenbait argitasun batzuk*.

Irakurleen kaltetan, *ezin*-i buruzko aipamenak oro norakorik gabe desagertu zaizkigu 461. orrialdetik.

Huskeria ez, garrantzi handiko kontua baizik, azkenerako utzi dudana: *ari* aditzarena, alegia. Eta deliberatuki diot «*ari* aditza», *EGLU*-k 158. orrialdean bai aditzasuna bai eduki semantikoa ukatzen dion arren aditza delako. Aspektuari dagokion aditza, prozesu edo ekintza baten jarraidura adierazten duena; *hasi* aditzak menpeko aditzaren prozesu edo ekintzaren hastapena adierazten duen bezala.» Ari naizela, ari naizela» hasten diren Pello Errotaren bertsoak gogoan dituztenek ondotxo dakitenez, bere eskuko aditza ere izan daiteke, gutxi gorabehera *lan egin* esamoldearen esanahikidea delarik. Egia da, morfologiaren aldetik *ari* eta *hasi* ez dira berdintzatzen, *hasi* bezalako aditz normalean forma burutuak direnak, *ari*-ren kasuan orainari baitagozkio. Bai hala da, eta zer? Honelako aditzak ezagunak dira hizkuntza askotan, Latina barne, eta preterito-presenteko aditzak deitu ohi dira. Gure hizkuntzan bertan ere ez dira gutxi: *balio*, *behar*, *bizi*, *falta*, *gura*, *kosta*, *merezi*, *nahi*, *opa* eta abar. Aditzak direnez, geroaldia ohizko moduan adierazten dute: *beharko*, *biziko*, *faltako*, eta abar. Bai eta *ariko* ere. Bere esanahikidea *ari izango* sasikoa dugu, Azkuek munduratua, jatorragotzat zeukalako. Baina Axularek, Povvreaux, Kardaberazek, Ubillosek Mendiburuk, hots, Azkuez lehenagoko idazle guztiek *ariko* erabiltzen zuten ez eta behin ere *ari izango*. Eta horrek garrantzia badu. Ari, *EGLU*-k uste duenez, aditza ez balitz, *ari izango* ezinbestez izango litza-teke forma zaharrena. Baina alderantziz gertatzen da.

Forma burutuak, horiek bai, izan-en bitartez eratzen dira: *ari izan da*. Aspektu burutua zuzenkiro *ari*-ri ere eransten zaiola dio *EGLU*-k. Baina *aritu*-k beste aditz bat dela dirudi: *aritzen da*, *aritu da*, *arituko da*, *ari*-ren formak *ari da*, *ari izan da*, *ariko da* direla. Izan ere, esanahi berdintsuko aditz arrunt bat aldean daukate preterito-presenteko aditz askok: *bizi* eta *bizitu*, *falta* eta *faltatu*, *kosta* eta *kostatu*, *merezi* eta *merezitu*, *opa* eta *opatu*.

Ari-ren funtzioaz ere zerbait esan nahi nuke. *EGLU*-k behin eta berriz aldarrikatzen du aspektu puntukaria adierazten duela. Baina egia al da hori? As-

pektu puntukaria adieraz baleza, honako perpaus honek guztiz normala izan beharko luke:

(27) Bonba hori oraintxe lehertzen ari da.

Ez da normala, ordea, arras bitxia baizik. Zergatik? Hain zuzen, *-tzen + ari* perifrasiaren esanahia aditz izenak adierazten duen ekintzaren jarraia delako, *EGLU*-k berak 440. orrialdean aitortuko duenez. Esanahi horrekin, ordea, ezin daiteke puntukaria izan, puntukaritasunaren aurkako bat baizik.

Hirugarren eta laugarren liburukiei buruz ez dut deus esatekorik, arta handiz mamituak baitira. Hauxe bai esango dut, ordea: hirugarren liburukiaren zati batzuk irakurtzean ez dudala oso ondo ikusten gramatika ala lexikografia lantzen ari den hor *EGLU*. Gainera, bi liburuki hauei buruz, esaera zahar bat gogorarazi nahi nuke: Etxean gatza ugari dagoela eta, ez dezazula bazkaria gehiegi gazi. Zertara diodan hori? Bada, orain eskumenean daukazuen Korpusaz baliatuz, hitz eta esamolde bakoitzaren erabilpenak erraz eta erruz eskura daitezkeelarik, ez dira hargatik inola ere aipamen guztiok *EGLU*-ren testuan sartu behar. Askotxo badira, egokienak eta ohargarrienak soil-soilik sar bitez *EGLU*-ren orrialdeetan, irakurleari bestela asper eta nekagarri gerta dakioke, eta ez du testua behar den arretaz irakurriko.

Bukatzer a noa. *EGLU*-ren kontra dudana laburbildurik, hona hemen erantzukirik nagusienak: Bihurkarien eta elkarkarien trataera motza, artikulua gainera nahaskeria batzuk, *-ko* izenlagungilea kasu-markatzat hartua, maila aditzondoan joskera aztertzeke gelditua, subjektu bizidun perpaus inpersonala erabateko moduan gaitzetsia, eta *ari* bezalako preterito-presenteko aditzik ez ezagutzea.

Hasieran esan dudanez, mintzaldi hau *EGLU*-ren aldekoa izan balitz, ez nuke berehalakoan bukatuko, baina kontrakoa izan eta bukatua da.

Beraz, Jaun-Andre agurgarriok, ondo esanak gogoan hartu eta gaizki esanak barkatu.

AIPAMENAK

Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*, Bilbo, 1986.

Garoa, Durango, 1912.

Aire, F., «Xalbador», *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976.

Alzaga, T., *Bernaño' ren larriyak*, Tolosa, 1963.

Añibarro, P.A., *Jesu Christoren lau evangelioac batera alcarturic*, Bilbo, 1991.

- Arbelbide, J.P., *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, 1895.
- Arejita, A., *La obra de Juan Antonio Moguel, I, Gramática descriptiva de la lengua* (argitara gabea)
- Atxaga, B., *Obabakoak*, Donostia, 1988.
- Azkue, R.M., «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlin, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de Agosto de 1922», *Euskera* VI, 4, (1925), 60-66.
- Beovide, K., *Asisco loria*, Zarautz, 1992.
- Catecismo de Elgoibar, Cristinaubaren eracuspenea edo doctrina christiana*, Bilbao, 1987.
- Duhalde, M., *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, Baiona, 1809 (faksim.: Donostia, 1978).
- Elizalde, F., *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Iruñea, 1735.
- Elizen Arteko Biblia: Itun Berria*, Bilbo, 1983.
- Etcheberri, J. «Ziburukoa», *Manual devotioenezcoa*, Bordele, 1627 (faksim.: Donostia, 1978).
- Etxepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele, 1545.
- Euskaltzaindia, *Euskal gramatika lehen urratsak I*, Iruñea, 1985.
Euskal gramatika lehen urratsak I (eraskina), Bilbo, 1987.
Euskal gramatika lehen urratsak II, Bilbo, 1987.
Euskal gramatika lehen urratsak III (Lokailuak), Bilbo, 1990.
Euskal gramatika lehen urratsak IV, Bilbo, 1994.
- Ibiñagabeitia, A., *Bergiliren idazlanak osorik: unai-kantak eta alor-kantak*, Bilbo, 1966
- Joannateguy, B., *Sainduen bizitzea, lehen zatia*, Baiona, 1890.
- Labayen, A., *Teatro osoa euzkeraz I*, Bilbo, 1977.
- Lardizabal, F.I., *Testamentu Zarreko kondaira I*, Donostia, 1995.
Testamentu berriko kondaira edo historia, Bilbo, 1957.
- Larzabal, P., *Iru ziren*, Tolosa, 1962.
- Leizarraga, J., *Testamentu Berria*, La Rochelle, 1571.
- Mitxelena, K., *Euskal idazlan guztiak VII*, Zarautz, 1988.
Orotariko Euskal Hiztegia, I-X, Bilbo, 1987-1997.

- Moguel, J.A., *Peru Abarca*, Durango, 1881 (fac-simile Bilbo, 1981)
Cristau eracastle euscalduna, Bilbo, 1994.
Confesiño ona, Gasteiz 1803.
Ipuñiak, Bilbo, 1995.
Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia, Bilbo, 1991.
- Narbaiz, P., «Arradoy», *San Frantses Jatsukoa*, Donostia, 1966.
- Pouvreau, S., *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*, Paris, 1664.
- Saltarelli, M., *Basque*, Londres, New York, 1988.
- Txirrita, *Txirritaren Bertsoak II*, Tolosa, 1971.
- Unzueta, A., «Nuevos datos sobre el reformador de ermitaños y poeta vasco Juan de Undiano», *FLV XIV*, 39, 329-337, (1982).
- Urretabizkaia, A., *Aspaldian. Espero zaitudalako. Ez nago sekula bakarrik*. Donostia, 1983.
Saturno (3. argitalpena), Donostia, 1990.
- Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa*. Oñati, 1962.
- Zavala, A., *Txirrita*, Tolosa, 1962.